BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

544

EBAZPENA, 2011ko abenduaren 29koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena, zeinaren bidez handitu egiten baita ordainketa eskuordetuaren eraginpean dauden eta erretiro partziala hartu duten langileei lanaldi partzialeko kontratuak egiteko itunpeko ikastetxe pribatuetara zuzendutako dirulaguntza-deialdiaren guztizko zenbatekoa.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuak 2011ko ekainaren 22an emandako Aginduak ordainketa eskuordetuaren eraginpean dauden eta erretiro partziala hartu duten langileei lanaldi partzialeko kontratuak egiteko itunpeko ikastetxe pribatuetarako dirulaguntzak deitzen ditu (2011-07-13ko EHAA.) Agindu horren 5. artikuluan ezartzen denez, deialdira gehienez ere 3.607.052,52 euro zuzenduko dira eta guztizko aurrekontu hori eguneratu ahal izango da, beti ere eguneratze hori kredituen atxikidurari edo aurrekontu-aldaketari buruz indarrean dagoen legerian ezarritako araubidearen arabera egingo delarik eta eguneratzearen berri Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen ebazpenaren bidez emango delarik.

Kontuan izanda, dirulaguntza-deialdi hori ebazteak berekin dakartzan diru-premiak eta 2011ko ekainaren 22ko Aginduko 5. artikulua (2011-07-13ko EHAA) betez, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Laguntza-deialdiaren hasierako zenbatekoa aldatzea, zenbateko hori 273.103,24 eurotan gehituz.

2. artikulua.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari hilabeteko epean, ebazpena EHAAn argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 29a.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea,
MARÍA SOLEDAD ESTEBAN GALARZA.